

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

INGURUGIRO GAJETARAKO IKASTEGIA

Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren Kontseiluaren 2021eko urriaren 29an hartutako erabakiaren laburpena: Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak antolatutako jardueretan parte hartzen duten ikasleen garraioa diruz laguntzeko deialdia. 2021-2022 ikasturtea

BDNS(Identif.): 595968

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/595968>).

Lehena. Onuradunak

Ondoko betebeharrak betetzen dituzten ikastetxeek eskuratu ahal izango dituzte garraiorako laguntza hauek:

- Ikastetxea Gasteizko udalerrian kokatua egotea edo, gutxienez, ikasleen ehuneko 60 udalerrian erroldatua egotea.
- Ikasle guztiek edo horietako batzuek 2021eko urritik 2022ko ekainera bitartean Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak ikasleentzat antolatu dituen jardueretako batean parte hartu izana.
- Jarduera horietan parte hartzeko garraio kolektiboren bat erabili behar izana, ikasleak - ikastetxetik jarduera burutu den tokira eta/edo handik ikastetxera eramateko.

Bigarrena. Helburua

Gasteizko ikastetxeei laguntza ekonomikoa ematea da diru-laguntza deialdi honen xedea, haien ikasleak Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak antolatutako jardueretara eramateko.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren Kontseiluaren 2021eko urriaren 29an onartu ditu eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 6.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Ikastetxeek eskaerak aurkeztu beharko dituzte Udal Erregistroan edo Udal Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan 2022ko ekainaren 30a baino lehen.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 3a

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren presidentea

ANA OREGI BASTARRIKA